

**2023KO EUSKAL AUTONOMIA
ERKIDEGOKO AURREKONTU
OROKORRAK**

**PRESUPUESTOS GENERALES
DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA
DE EUSKADI 2023**



**TXOSTEN
EKONOMIKO-FINANTZARIOA**

**INFORME
ECONÓMICO-FINANCIERO**

Euskadi, auzolana, bien común

**2023KO EUSKAL AUTONOMIA
ERKIDEGOKO AURREKONTU
OROKORRAK**

**PRESUPUESTOS GENERALES
DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA
DE EUSKADI 2023**



Euskadi, auzolana, bien común

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

Lan honen bibliografía-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoa aurki daiteke:

Un registro bibliográfico de esta obra puede consultarse en el catálogo de la Biblioteca General del Gobierno Vasco:

<https://www.katalogoak.euskadi.eus/katalogobateratua>

Argitaraldia / Edición: 1.a, 2023ko urtarrila / 1a, enero 2023

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administratzioa / Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco
Ekonomia eta Ogasun Saila / Departamento de Economía y Hacienda

Internet: www.euskadi.eus

Argitaratzalea / Edita: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia / Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz

Aurkibidea / Índice :

| | |
|---|----|
| 1. EKONOMIAREN EGOERA LABURBILDUTA <i>LA COYUNTURA ECONÓMICA EN SÍNTESIS.....</i> | 5 |
| 2. EAE-KO EKONOMIA 2022KO BIGARREN HIRUHILEKOAN <i>LA ECONOMÍA VASCA EN EL SEGUNDO TRIMESTRE DE 2022.....</i> | 8 |
| 2.1. EAEko Ekonomiaren Testuingurua <i>Contexto de la Economía Vasca.....</i> | 9 |
| 2.2. Ekoizpena eta Enplegua <i>Producción y Empleo.....</i> | 14 |
| 2.3. Barneko eta kanpoko eskaria <i>Demandा interna y externa.....</i> | 20 |
| 2.4. Prezioak, kostuak eta soldatik <i>Precios, costes y salarios.....</i> | 28 |
| 2.5 Arlo Publikoa <i>Sector Público</i> | 33 |
| 2.6. Arlo finantzarioa <i>Sector financiero</i> | 36 |
| 3. EAE-RAKO ETA TESTUINGURURAKO EKONOMIA-AURREIKUSPENA <i>PREDICCIONES ECONÓMICAS PARA EL PAÍS VASCO Y SU ENTORNO.....</i> | 43 |

1. EKONOMIAREN EGOERA LABURBILDUTA
LA COYUNTURA ECONÓMICA EN SÍNTESIS

Ukraina eta Errusiaren arteko gerrak munduko ekonomiaren bilakaera baldintzatzen jarraitzen du. Munduko BPGan duen pisua nahiko txikia den arren, gatazkak ezegonkortasun handia eragin du energiaren eta lehengaien merkatuetan, eta inflazioaren tasak hamarkadatan ikusi gabeko mailetara igo dira. Eragile ekonomikoien ziurgabetasuna eta banku zentral nagusien politika ekonomikoaren erantzuna, interes tasak etengabe igotzen ari baitira, herrialde garatuetako jarduera ekonomikoa hozten hasi da. Testuinguru horretan, EAEko ekonomia urte arteko tasa %5,0 hazteko gai izan zen bigarren hiruhilekoan, euroaren eremuko batez bestekoa (%4,1) baino tasa handiagoa baita, nahiz eta Espainiako ekonomiak lortutako baliora (%6,8) iritsi gabe. Aipatzeko da Europako motorra (Alemania) gehiago ahultzen ari dela eta %1,7 baino ez dela hazi bigarren hiruhilekoan.

Bigarren hiruhilekoan EAEko ekonomiak lortu zuen bultzada handiak ez du ezkutatzen hazkunde erritmoan moteltze bat gertatzen ari dela, sektore nagusi guztieta hedatzen dena. Zehatz-mehatz adierazita, balio erantsia moteldu egin zen: aurreko hiruhilekoko %6,0tik bigarren hiruhilekoko %5,4ra, alegia. Industriak oso balio esanguratsua eskuratu zuen, urte arteko tasa %6,1 izan baitzen, baina azken datuen arabera, udako hilabeteetan sektore horren jarduera galgatu egin da, eta hori inguruko herrialdeetan ere gertatzen da. Kostuak handitza, interes tasak igotzea eta ziurgabetasuna dira industrian jarduera hobea izatea eragozten duten arrazoiak batzuk.

Zerbitzuek hamarren batzuk apaldu zuten beren hazkunde erritmo sendoa, %5,6raino, 2021ean lortutako batez besteko baliotik (%5,8) oso hurbil dagoen tasa baita. Hiru jarduera taldeetatik, merkataritza, ostalaritza eta garraioari dagokiona izan zen gehikuntza tasa biziena eskuratu zuena, covid-19a kontrolatzeko ezarri ziren mugikortasuneko murrizketak erabat kendu zirelako. Horrela, atal hori %14,1 hazi zen, lehen hiruhilekoko datua gaindituz. Bestalde, sektore publikoari lotutako jarduerak (administrazio publikoa, hezkuntza, osasuna eta gizarte zerbitzuak) %1,3ra jaitsi zuten emaitza, pandemian zehar egindako ahaleginaren ondoren. Azkenik, gainerako zerbitzuek %3,0ko igoera izan zuten.

Eraikuntzak balio erantsia %1,5 hobetu zuen bigarren hiruhilekoan, eta horrek areagotu egin zuen aurreko aldieta erakusten zuen moteltzeko profila. Sektore honetan ere nabarmena da lehengaien garestitzea nazioarteko merkatuetan izaten ari den eragina, martxan jar litezkeen obra batzuen errentagarritasuna zalantzan jartzen baitu. Ildo horretan, etxebizitza berriak egiteko bisak murriztu egin dira azken hilabeteetan, eta litzazio ofiziala tasa negativoetara igaro da, sei hiruhilekotan gorakada handiak izan ondoren.

Eskariaren ikuspegitik, une honetako ezaugarririk aipagarriena kampo eskaria BPGaren hazkundeari egiten ari zaion ekarpen handia da. Hain zuzen ere, EAEko ekonomiaren bigarren hiruhilekoko hazkunde guztiaren ia erdia kampo saldoaren ekarpenaren ondorio izan zen, esportazioen hedapen handiari esker, eta importazioek, aldiz, intentsitate txikiagoarekin egin zuten gora. Zehatzago esanda, esportazio erreala %13,7 hazi ziren bigarren hiruhilekoan, aurreko hiru hiruhilekoetan izandako tasaren

La guerra entre Ucrania y Rusia sigue condicionando la evolución de la economía mundial. A pesar de que su peso en el PIB mundial es relativamente pequeño, el conflicto ha generado una gran inestabilidad en los mercados de la energía y las materias primas, elevando las tasas de inflación a niveles no vistos en décadas. La incertidumbre de los agentes económicos y la respuesta de política económica de los principales bancos centrales, que están elevando de forma continua los tipos de interés, ha comenzado a enfriar la actividad económica de los países desarrollados. En ese contexto, la economía vasca fue capaz de crecer en el segundo trimestre un 5,0% interanual, una tasa superior a la media de la zona del euro (4,1%), aunque sin llegar al valor alcanzado por la economía española (6,8%). Cabe señalar que el motor de Europa (Alemania) se resiente en mayor medida de la situación y tan solo crece al 1,7%.

El fuerte impulso de la economía vasca en el segundo trimestre no esconde que se está produciendo una desaceleración en el ritmo de crecimiento, que se extiende a todos los sectores principales. En concreto, el valor añadido moderó su impulso desde el 6,0% del trimestre anterior hasta el 5,4% del segundo trimestre. La industria anotó un valor muy significativo, del 6,1% interanual, pero los datos más recientes señalan que en los meses de verano su actividad se ha frenado, algo que también sucede en los países del entorno. La elevación de los costes, la subida de tipos de interés y la incertidumbre son algunas de las razones que impiden un mejor desempeño de la industria.

Los servicios suavizaron algunas décimas su fuerte ritmo de crecimiento hasta el 5,6%, una tasa muy cercana al valor medio alcanzado en 2021 (5,8%). De los tres grupos de actividades, el correspondiente a comercio, hostelería y transporte fue el más expansivo, gracias a la supresión total de las restricciones a la movilidad que se impusieron para controlar la covid-19. Así, ese apartado creció un 14,1%, superando el dato del primer trimestre. Por su parte, las actividades ligadas al sector público (administración pública, educación, sanidad y servicios sociales) moderaron su resultado hasta el 1,3%, tras el esfuerzo realizado durante la pandemia. Por último, el resto de servicios consiguió un incremento del 3,0%.

La construcción mejoró su valor añadido un 1,5% en el segundo trimestre, con lo que acentúa el perfil de desaceleración que ya mostraba en los períodos anteriores. También en este sector es evidente el impacto que está teniendo el encarecimiento de las materias primas en los mercados internacionales, que cuestiona la rentabilidad de algunas obras que podrían ponerse en marcha. En ese sentido, los visados para la realización de nuevas viviendas se han reducido en los últimos meses y la licitación oficial pasó a tasas negativas tras seis trimestres de fuertes incrementos.

Desde la perspectiva de demanda, la característica más reseñable del momento es la fuerte aportación que la demanda externa está realizando al incremento del PIB. Efectivamente, prácticamente la mitad de todo el crecimiento de la economía vasca en el segundo trimestre fue consecuencia de la contribución del saldo exterior, gracias a una fuerte expansión de las exportaciones, frente a unas importaciones que aumentaron con menos intensidad. Más en detalle, las exportaciones reales

oso antzekoa. Bestalde, importazioak %8,5 gehitu ziren, aurreko aldian baino ia bi puntu gutxiago.

Barne eskariak nabarmen arindu zuen hazkunde erritmoa, aurreko %3,2tik %2,4ra. Hala eta guztiz ere, beraren bi osagai nagusiek eutsi egin zioten aurreko goranzko joerari, eta administrazio publikoen kontsumoa izan zen apaltze horren erantzulea, lehen hiruhilekoan hazkunde apala (%0,6) izatetik bigarrenean jaitsiera esanguratsua (-%3,1) izatera igaro baitzen. Pandemiaren ondoren normaltasun egoerara itzultzeak aurreko bi urteetan egin ziren ezohiko gastu batzuk kentzea ekarri du. Kontsumo pribatuak (%3,0) eta kapital eraketa gordinak (%5,0), aldiz, lehen hiruhilekoaren antzeko tasak eskuratu zitzuzten.

Inflazioak ekonomia garatuen ahulgunea izaten jarraitzen du, eragile ekonomikoek har ditzaketen erabakiak baldintzatzen baititu. Euskadiren kasuan, abuztuko KPla, ezagutzen den azkena hori baita, %10,3an kokatu zen, eta badirudi goranzko bidea gelditu egin dela. Hazkunde horren zati handi bat elikagaietan eta energian kontzentratzen da, merkatzen hasi baitira, baina denbora beharko da gainerako produktuetara eramateko.

Ekonomiaren martxa onaren ondorioz, emplegu sorrera garrantzitsua izan zen bigarren hiruhilekoan, eta aurreko urtearen aldean 35.500 lanpostu inguru sortu dira. Horri esker, langabezia-tasa %8,5era jaitsi da. Hala eta guztiz ere, empleguari buruzko azken datuek, Gizarte Segurantzako afiliazioei buruzkoak baitira, iradokitzen dute azken hilabeteetan lanpostu berriak sortzeko gaitasuna zertxobait apaldu dela.

2022-2023 aldirako aurreikuspenen eguneratzeak apenas berrikusten du hamarren bat beherago aurtengo hazkundea, baina beheranzko zuzenketa garrantzitsua egiten du, ordea, 2023ari dagokionez, inguruko ekonomietarako egin diren berrikuspenen ildotik. Hala, egungo egoera makroekonomikoak adierazten du EAeko ekonomia %4,3 haziko dela aurtzen, aurrez aurreikusitakoa baino bi hamarren gutxiago, eta %2,1 datorren urtean, hau da, martxoan aurreikusi zen balioa baino bi puntu gutxiago. Datu horiek inflazioaren bilakaera on baten mende egongo dira datozen hilabeteetan. Hala ere, inflazioak egoera horretan kontuan hartutakoa baino portaera okerragoa izango balu, datorren urterako hazkunde txikiagoa izango litzateke ondorioa.

crecieron en el segundo trimestre un 13,7%, una tasa muy similar a la registrada en los tres trimestres anteriores. Por su parte, las importaciones aumentaron un 8,5%, en este caso casi dos puntos menos que en el periodo anterior.

La demanda interna suavizó notablemente su ritmo de crecimiento, desde el 3,2% hasta el 2,4%. Sin embargo, sus dos componentes principales mantuvieron el tono expansivo precedente y fue el consumo de las administraciones públicas el responsable de esa moderación, al pasar de un crecimiento modesto (0,6%) en el primer trimestre a una caída significativa (-3,1%) en el segundo. La vuelta a una situación de normalidad tras la pandemia ha supuesto la retirada de algunos gastos extraordinarios que se realizaron en los dos años anteriores. En sentido contrario, tanto el consumo privado (3,0%) como la formación bruta de capital (5,0%) crecieron a tasas similares a las del primer trimestre.

La inflación sigue siendo el punto débil de las economías desarrolladas, puesto que condiciona las decisiones que puedan tomar los agentes económicos. En el caso de Euskadi, el IPC de agosto, último conocido, se elevó hasta el 10,3% y parece que la senda ascendente se ha frenado. Buena parte de ese incremento se concentra en los alimentos y en la energía, que ya han empezado a abaratarse, pero se necesitará tiempo para que se traslade al resto de productos.

La buena marcha de la economía se ha traducido en una importante creación de empleo en el segundo trimestre, que se ha cuantificado en unos 35.500 puestos de trabajo en relación al año anterior. Gracias a ello, la tasa de paro ha bajado hasta el 8,5%. No obstante, los datos de empleo más recientes, relativos a las afiliaciones a la Seguridad Social, sugieren que en los últimos meses la capacidad de generar nuevos puestos de trabajo se ha frenado un poco.

La actualización de las previsiones para el periodo 2022-2023 apenas revisa a la baja alguna décima el crecimiento del presente año, pero hace una corrección a la baja importante en lo referente a 2023, en línea con las revisiones que se han realizado para las economías del entorno. Así, el escenario macroeconómico actual indica un crecimiento de la economía vasca del 4,3% para este año, dos décimas menos de lo anteriormente previsto, y de un 2,1% para el próximo, es decir, dos puntos por debajo del valor previsto en el ejercicio de marzo. Estos datos están sujetos a una evolución favorable de la inflación durante los próximos meses. Sin embargo, si la inflación tuviese un comportamiento más persistente del considerado en este escenario, la consecuencia sería un menor crecimiento para el año próximo.


2. EAE-KO EKONOMIA 2022KO BIGARREN HIRUHILEKOAN
LA ECONOMÍA VASCA EN EL SEGUNDO TRIMESTRE DE 2022

2.1. EAEko Ekonomiaren Testuingurua
Contexto de la Economía Vasca

Aurtengo bigarren hiruhilekoan, inflazio handiak, eskaintzaren aldetiko murrizketen iraunkortasunak eta ziurgabetasun handiagoak ekonomian eragin moderatzailea izaten jarraitu zuten. Familiek erosteko ahalmena nola murrizten ari zen ikusi zuten, eta enpresek beren hornidura kateetan kostu eta disruptio handiagoei aurre egiten jarraitu zuten, nahiz eta zenbait botila lepo konpontzen ari zirelako seinale hasiberriak ikusi ziren. Hala eta guztiz ere, dena ez zen negatiboa izan. Jarduera ekonomikoak ekonomia berriro irekitzearen onura izaten jarraitu zuen, zerbitzuen gastua bereziki babestu baitzuen, eta hirugarren hiruhilekoan are handiagoa izatea espero da, nazioko nahiz nazioarteko turismoaren hazkunde garrantzitsuari esker. Lan merkatuak indartsu jarraitu zuen, eta zerga politikaren babesla lagungarri izaten ari da Ukrainako gerra energiaren prezioen igoerak gehien kaltetutakoengan izaten ari den eragina negatiboa arintzeko.


En el segundo trimestre del año, la alta inflación, la persistencia de las restricciones de oferta y la mayor incertidumbre continuaron teniendo un efecto moderador sobre la economía. Las familias vieron mermar su poder adquisitivo y las empresas siguieron afrontando unos mayores costes y disruptiones en sus cadenas de suministro, aunque se observaron señales incipientes de que algunos cuellos de botella estaban disminuyendo. No obstante, no todo fue negativo. La actividad económica siguió beneficiándose de la reapertura de la economía, que apoyó especialmente el gasto en servicios y que se espera sea todavía mayor en el tercer trimestre gracias al importante incremento del turismo, tanto nacional como internacional. El mercado laboral siguió fuerte y el apoyo de la política fiscal está contribuyendo a amortiguar el impacto que está teniendo la guerra de Ucrania en los más afectados por la subida de los precios de la energía.

Munduko ekonomia. BPG (I)
Urte arteko aldakuntza tasak



Iturria: ELGA.

Economía mundial. PIB. (I)
Tasas de variación interanual



Fuente: OCDE.

Ukrainako gerraren hasierak areagotu egin zuen lehengai batzuen prezioen igoera, eta horrek aldaketa positiboa ekarri du trukeari dagokionez Latinoamerikako herrialde batzuengat, urteko bigarren hiruhilekoan hainen hazkunde tasak nabarmen igo zirela ikusi baitute. Besteak beste, Kolonbiako BPG %12,6ra igo zen, Txileko jarduera ekonomikoa %5,6 hazi zen, Brasilen BPGaren hazkunde tasa %3,2ra iritsi zen eta Mexikok lehen hiruhilekoko hazkunde tasari eustea eta %1,9an finkatzea lortu zuen. Hala eta guztiz ere, inflazio gertakari horren iraunkortasunak, uste baino handiagoa izan baita, zeharkako eta bigarren txandako ondorio esanguratsuak eragin ditzake, batez ere indexazio maila handiak dituzten ekonomia batzuetan. Horri gehitu behar zaio Txinako ekonomiaren dezelerazioa, eragin nabarmena izan baitezake Latinoamerikan, eskualdeak herrialde horrekin dituen merkataritza eta inbertsio lotura garrantzitsuak direla eta; beraz, aurtengo bigarren seihiokoaren bilakaera ziurgabetasunez inguratuta dago.

El aumento de los precios de algunas materias primas, que se intensificó al comienzo de la guerra en Ucrania, ha supuesto una perturbación positiva en los términos de intercambio para algunos países de América Latina, que han visto cómo sus tasas de crecimiento han aumentado de manera destacada en el segundo trimestre del año. Así, entre otros, el PIB de Colombia escaló hasta el 12,6%, la actividad económica en Chile creció un 5,6%, en Brasil el PIB alcanzó un 3,2% y México logró mantener la tasa de crecimiento del primer trimestre y consolidar su 1,9%. Sin embargo, la persistencia de este episodio inflacionista, mayor de lo esperado, puede acabar generando efectos indirectos y de segunda ronda significativos, especialmente en algunas economías que presentan elevados grados de indexación. A ello hay que sumarle la desaceleración de la economía china, que puede impactar significativamente sobre América Latina, dados los importantes lazos comerciales y de inversión que la región mantiene con ese país, por lo que la evolución del segundo semestre del año está rodeada de incertidumbres.

Izan ere, Txinan, covid zeroiko politikan oinarrituta herrialde horretako hainbat tokitan ezarri ziren konfinamendu zorrotzek eragin negatiboa izan zuten joan-etorriean, hornidura katean eta kontsumoan, eta horrek moteltze ekonomikoa areagotu zuen udaberrian. Zehazki, bigarren hiruhileko honetarako kalkulatutako %0,4ko hazkundeak 1992tik izandako emaitzarik txarrena erakusten du, 2020ko lehen hiruhilekoan izandako -%6,7ko gainbehera izan ezik. Hala eta guztiz ere, Txinako gobernuak baztertu egin zuen edozein atzeraldi, izan ere, covid protokolo batzuk lasaitu bezain laster adierazleak suspertzen hasi ziren. Hala, PMI indize konposatuak horixe baieztagaten du; izan ere, apirilean eta maiatzean hedapen eremutik behera egin ondoren, ekainean 54,1 puntuaria igo zen, eta, ondoren, 50 puntutik gora mantendu da. Horregatik, bigarrena baino hirugarren hiruhileko hobea espero da, baina hazkunde hori azken hamarkadetan izandako dinamismotik urrun geratuko da.

Hala eta guztiz ere, bigarren hiruhileko adierazleek ekonomia erresiloientzako erakutsi zitzuten, batez ere Europakoak, nahiz eta horiek guztiak beheranzko joera argia erakutsi zuten, eta, orain arte argitaratutako adierazleen arabera, uztalean eta abuztuan mantendu egin zen beheranzko joera hori. Hain zuen ere, ELGA, oro har, %3,7 hazi zen, aurreko erregistroa baino zazpi hamarren gutxiago, baina, edonola ere, 2018 eta 2019 artean erregistratutako batez besteko %2,0tik gorako erritmoan. Prezioek, aldiz, bilakaera negatiboa izan zuten. Erakundea osatzen duten ekonomien urte arteko inflazio tasaren datuak %10,2 erregistratu zuen uztalean, prezioen igoerak handiena 1988tik, eta, ondorioz, hamabost dira bi digituko inflazio tasa izan zuten herrialdeak.

Zehatzago esanda, AEBtan, Fed-ek hasitako interes tasen igoeren ziklo azkarrak, familien erosteko ahalmenaren galerak, inflazio handiaren eta laguntza publikoen programen amaieraren ondorioz, kontsumoari eta inbertsio pribatuarri eragin zien, batez ere bizitegietan eginiko inbertsioari, kontrakzioa areagotu baitzuen eta bi aggregatuen erregistroak moteldu. Hala eta guztiz ere, kontsumo eta inbertsio pribatuek 1,54 punto ekarri zitzuten BPGaren 1,7 puntuetatik. Halaber, lan merkatuak indar inbidiagarria erakutsi zuen, abuztuan langabezia tasa %3,7 izan baitzen, enplegu betea iradokitzen duena, langabeak baino askoz ere lanpostu huts gehiago daudelako. Horregatik guztiagatik, nahiz eta ekonomiaren hoztea biziagoa izaten ari den tasa igoerekiko sentikorrenak diren sektoreetan, hala nola bizitegi sektorean, zerbitzuen sektoreak aurrerapen nabarmenak erakusten jarraitzen du, eta kontsumoak nahiko sendo jarraitzen du; beraz, oraingoz baztertu egin da atzeraldirik egotea.

Japonian, gobernuak, lehen hiruhilekoan, pandemiarekin lotutako jardueraren balaztak kendu ondoren, bertako BPGa %1,4 hazi zen bigarren hiruhilekoan. Gehikuntza hori esportazioen bultzadan oinarritu zen, Japoniako monetaren beherakadak mesede egin baitzien (%20 inguru galdu du AEBetako dolarraren aldean azken sei hilabeteetan), eta kontsumo pribatuaren gorakadan, %3,0 hazi baitzen. Gainerako ekonomietan ez bezala, prezioen bilakaera ez da, oraingoz, oztopo Japoniako ekonomiarentzat. Zehazki, KPIa urte arteko %2,4 igo zen uztalean, hau da, ondoz ondoko hamaikagarren hilabetea hazten, eta zazpi urte eta erdian prezioek izan duten gorakadarik handiena da. Aitzitik, hirugarren hiruhilekorako bilakaera ekonomikoak berriz ere erritmoa galtzen duten adierazleak jasotzen ditu,

Y es que en China, los estrictos confinamientos decretados en diversos puntos de la nación en base a su política de covid cero supusieron un impacto negativo sobre los desplazamientos, la cadena de suministros y el consumo, que precipitó la desaceleración económica en los meses de primavera. En concreto, el crecimiento del 0,4% calculado para este segundo trimestre muestra su peor resultado desde 1992, a excepción de la debacle del -6,7% que experimentó en el primer trimestre de 2020. Con todo, el gobierno chino descartó cualquier recesión, y es que en cuanto se relajaron algunos protocolos covid los indicadores comenzaron a recuperarse. Así, lo confirma el índice PMI compuesto que, tras caer de la zona de expansión en los meses de abril y mayo, en junio remontó con fuerza hasta los 54,1 puntos, para posteriormente mantenerse por encima de los 50 puntos. Se espera por ello un tercer trimestre mejor que el segundo, si bien su crecimiento quedará lejos del dinamismo registrado en las últimas décadas.

Con todo, los indicadores del segundo trimestre mostraron unas economías resilientes, especialmente las europeas, si bien todas ellas estuvieron marcadas por un claro sesgo a la baja, que, en base a los indicadores publicados hasta el momento, se mantuvo en los meses de julio y de agosto. Concretamente, la OCDE, en su conjunto, creció un 3,7%, siete décimas por debajo del registro previo, pero, en cualquier caso, a un ritmo muy superior al 2,0% de media registrado entre 2018 y 2019. Por el contrario, los precios sufrieron una evolución desfavorable. El dato de la tasa de inflación interanual de las economías que integran su organización anotó un 10,2% en julio, la mayor subida de precios desde 1988, lo que eleva a quince el número de países que registraron una tasa de inflación a dos dígitos.

Más en detalle, en Estados Unidos, el rápido ciclo de subidas de los tipos de interés iniciado por la Fed, la pérdida de poder adquisitivo de las familias, como consecuencia de la elevada inflación y del fin de los programas de ayudas públicas, afectó al consumo y a la inversión privada, especialmente la residencial, que acentuó su contracción e hizo que los registros de ambos agregados se desaceleraran. Con todo, el consumo e inversión privadas aportaron 1,54 puntos de los 1,7 que totalizó el PIB. Además, el mercado de trabajo mostró una fortaleza enviable, con una tasa de paro en agosto del 3,7%, prácticamente de pleno empleo, con muchas más vacantes que desempleados. Por todo ello, si bien el enfriamiento de la economía está siendo más intenso en los sectores más sensibles a las subidas de tipos, como el residencial, el sector servicios sigue mostrando avances considerables y el consumo sigue relativamente sólido, por lo que por el momento se descarta una posible recesión.

En Japón, una vez que el gobierno, en el primer trimestre, eliminó los frenos a la actividad relacionados con la pandemia, el PIB creció un 1,4% en el segundo trimestre. Este avance se sustentó en el tirón de las exportaciones, que se vieron beneficiadas por la caída de la moneda japonesa, (ha perdido cerca de un 20% frente al dólar estadounidense en los últimos seis meses), y en el repunte del consumo privado, que creció un 3,0%. A diferencia del resto de economías, la evolución de los precios no supone, por el momento, un lastre para la economía nipona. Concretamente, el IPC aumentó en julio un 2,4% interanual, lo que supone el undécimo mes consecutivo de incremento y la mayor alza de precios en siete años y medio. Por el contrario, su evolución económica de cara al

eta abuztuan 50 puntuik behera jaitsi zen PMI konposatura.

Europar Batasunaren jarduera ekonomikoari mesede egin zion 2022ko bigarren hiruhilekoan ekonomia berriro irekitzeak. Eremu horretako BPGa %4,2 hazi zen, barne eskariaren ekarpenean positiboak bultzatuta, eta kanpo eskariak, berriz, eragin negatibo txikia izan zuen. Kontsumo pribatuak (%5,5) eta inbertsioak (%3,4) nabarmen egin zuten gora bigarren hiruhilekoan, eta kontsumo publikoak, berriz, hazkunde apalagoa izan zuen (%1,4). Bigarren hiruhilekoko hazkunde indartsua, gehienbat, zerbitzuen sektorearen jarduera biziaren ondorio izan zen, pandemiarekin lotutako murrizketa gehienak kendu ondoren. Turismoarekin eta ostalaritzarekin lotutako zerbitzuen kontsumoko gastua oso handia izan zen udaberrian, eta horrek, bereziki, sektore turistiko handiko herrialdeei egin zien mesede, hala nola Espainiari (%6,8), Italiari (%4,7) eta Frantziari (%4,2).

Aitzitik, Alemaniak garrantzi handiagoa du industrian zerbitzuetan baino, eta ez du hain aurrerapen handirik lortu. Kontsumitzaileek gastua handitu zuten arren, kapital eraketa gordina nabarmen jaitsi zen (-%1,7), eta esportazioek tonua galdu zuten, Errusiari ondasunen salmenta nabarmen txikiagoa egin zitzaiolako. Horren guztiaren ondorioz, Alemaniako ekonomia %1,7 hazi zen, bere merkataritza bazkide nagusiek erregistratutako mailaren oso azpitik.

Prezioei dagokienez, abuztuan inflazioak errekorra ezarri zuen Europar Batasunean, %10,1era iritsi baitzen, uztailean baino hiru hamarren gorago. Eurogune osoan, prezioen garestitzeak %9,1eraino egin zuen gora, energiaren prezioaren urte arteko igoera %38,6ra moteldu zen arren, uztailean baino puntu bat gutxiago.


tercer trimestre recoge unos indicadores que vuelven a perder ritmo, con un PMI compuesto que en agosto cayó por debajo de los 50 puntos.

La actividad económica de la Unión Europea se vio favorecida por la reapertura de la economía en el segundo trimestre de 2022. El PIB creció un 4,2 %, impulsado por una contribución positiva de la demanda interna, mientras que la demanda externa tuvo un efecto ligeramente negativo. El consumo privado (5,5%) y la inversión (3,4%) aumentaron sustancialmente en el segundo trimestre, mientras que el consumo público registró un avance más modesto (1,4%). El vigoroso crecimiento del segundo trimestre se debió, en su mayor parte, a la intensa actividad del sector servicios tras la retirada de la mayoría de las restricciones relacionadas con la pandemia. El gasto en consumo de servicios relacionados con el turismo y la hostelería ya fue muy elevado en la primavera, lo que favoreció en particular a países con un gran sector turístico, como España (6,8%), Italia (4,7%) y Francia (4,2%).

Por el contrario, Alemania, con mayor peso industrial que de servicios, no logró unos avances tan intensos. Pese a que los consumidores incrementaron su gasto, la formación bruta de capital cayó con fuerza (-1,7%), mientras que las exportaciones perdieron tono debido a una venta de bienes significativamente menor a Rusia. Como resultado de todo ello, la economía alemana creció un 1,7%, muy por debajo del nivel registrado por sus principales socios comerciales.


En lo que a los precios se refiere, la inflación en agosto registró en la Unión Europea un nivel récord al alcanzar el 10,1% tras incrementarse en tres décimas frente a julio. En el conjunto de la zona del euro, el encarecimiento de los precios escaló hasta el 9,1%, a pesar de que la subida interanual del precio de la energía se desaceleró al 38,6%, un punto menos que en julio.

Munduko ekonomia. BPG (II)
Urte arteko aldakuntza tasak



Iturria: Eurostat eta BEA.

Economía mundial. PIB (II).
Tasas de variación interanual



Fuente: Eurostat y BEA.

Hirugarren hiruhilekoari begira, 2022ko lehen seihibilekoan errebotea jaso ondoren, azken datuen arabera hazkunde

De cara al tercer trimestre, tras experimentar un rebote en el primer semestre de 2022, los últimos datos apuntan a

ekonomikoak moteltzko joera nabarmena izan du aurtengo azken hilabeteetan. Europako ekonomiak energiarekin krisiaren aurrean duen ahultasuna urteko hirugarren hiruhilekorako eskuragarri dauden jarduera adierazleetan hauteman daiteke. Europar Batasunerako PMI konposatua 48,8ra jaitsi zen abuztuan (48,9 euroaren eremurako), uztailoko erregistroa baino ia puntu bat beherago, eta urteko hirugarren hiruhilekoan jardueraren beste apaltze batekin bat dator. Erritmo galera hori bereziki nabarmena da Alemanian; izan ere, irailean PMI konposatua 45,9koa izan zen, 50 puntuko atalasearen azpitik hirugarren hilabetez jarraian.

Europar Batasuna alde batera utzita, Erresuma Batuak nabarmen murriztu zuen hazkunde erritmoa. Zehazki, jarduera ekonomikoa aurtengo lehen hiruhilekoan %8,9 hazi zen, eta bigarrenean, berriz, %2,9. Tonu galera hori kontsumo pribatuaren eta esportazioen dezelerazioagatik (%0,3) gertatu zen. Beste behin ere, eroskeko ahalmenaren murrizketak azaltzen du hazkunde txikiagoa. Bestalde, kanpo sektoreak zenbait hamarren kendu zizkion BPGaren hazkundeari.

Azkenik, Errusiako jarduera ekonomikoak uste baino moteltze txikiagoa erakutsi zuen. Hori horrela, 2022ko bigarren hiruhilekoan, bertako BPGaren hazkundea %4,0 murriztu zen aurreko urteko hiruhileko beraren aldean, eta horrek esan nahi du aurtengo atzeraldia ziurrenik adituen proiekzioetan aurreikusitakoa baino txikiagoa izango dela. Hala eta guztiz ere, jarduera ekonomikoak dezelerazio nabarmena izango duela aurreikusten da; izan ere, bai barne eskariari bai nazioarteko merkataritzari gero eta eragin handiagoa izaten ari dira aurrekaririk gabeko nazioarteko zigorren ondorioz. Zigor horiek importazioko prezioen igoerak eta eskaintza distorsioak eragin dituzte, eta faktore horiek inflazioaren gaineko goranzko presioak eragiten ari dira. Hala ere, presio horietako batzuk errubloaren sendotasunak eta kontsumo eskariaren ahultzeak indargabetu dituzte berriki.

una desaceleración sustancial del crecimiento económico durante los últimos meses del año. La debilidad de la economía europea ante la crisis energética ya es visible en los indicadores de actividad disponibles para el tercer trimestre del año. El PMI compuesto para la Unión Europea cayó en agosto hasta el 48,8 (48,9 para la zona del euro), casi un punto por debajo del registro de julio, lo que encaja con una nueva desaceleración de la actividad en el tercer trimestre del año. Esta pérdida de ritmo es especialmente acusada en Alemania, cuyo PMI compuesto de septiembre se situó en el 45,9, de forma clara por debajo del umbral de los 50 puntos por tercer mes consecutivo.

Al margen de la Unión Europea el Reino Unido vio su ritmo de crecimiento fuertemente mermado. En concreto, la actividad económica pasó de crecer un 8,9% en el primer trimestre del año a solo un 2,9% en el segundo. Esta pérdida de tono se debió a la desaceleración del consumo privado y de las exportaciones (0,3%). Una vez más, la merma de poder adquisitivo explica este menor avance. Por otro lado, el sector exterior restó varias décimas al incremento del PIB.

Por último, la actividad económica en Rusia mostró una desaceleración menos severa de lo esperado. Así, en el segundo trimestre de 2022, el crecimiento del PIB se redujo un 4,0% respecto al mismo trimestre del año anterior, lo que apunta a que la recesión pronosticada para este año probablemente sea menos profunda de lo anticipado en las proyecciones de los expertos. Con todo, se prevé que la actividad económica experimentará una desaceleración significativa, ya que tanto la demanda interna como el comercio internacional se están viendo cada vez más afectados por unas sanciones internacionales sin precedentes. Estas sanciones han provocado subidas de los precios de importación y distorsiones de oferta, factores que están ejerciendo presiones al alza sobre la inflación. Sin embargo, parte de estas presiones se han visto contrarrestadas recientemente por la mayor fortaleza del rublo y por el debilitamiento de la demanda de consumo.

2.2. Ekoizpena eta Enplegua
Producción y Empleo

2022ko bigarren hiruhilekoan, Araba, Bizkai eta Gipuzkoako ekonomiak aurreko aldieta erakutsi zuen goranzko joerari jarraipena eman zion, eta %5,0ko hazkunde izan zuen urte arteko tasan. Hazkunde erritmoa oraindik ezohikoa da oso altua delako. Halere, tasa hori aurreko epealdikoa baino zortzi hamaren txikiagoa da, eta zenbait hiruhilekotan luzatuko den moteltzko fase batia hasiera ematen dio. Hazkunde txikiagoa azaltzen duten arrazoien artean, beste ekonomia garatu batzuen egoera azaltzeko ere baliagarriak direnak, honako hauek aipatu behar dira: Ukrainako gerraren ondorioak, produktu energetikoaren garestitzea eta horrek ekarri duen inflazio handia, moneta politikaren zeinu aldaketa inflazioa geldiarazteko, Txinaren ahultasuna pandemiaren aurkako politikagatik eta eragile ekonomikoaren artean zabaldurik zurgabetasuna.

En el segundo trimestre de 2022, la economía vasca continuó con la senda expansiva mostrada en los períodos anteriores y creció un 5,0% interanual. A pesar de que se trata todavía de un ritmo de crecimiento inusualmente alto, la tasa es ocho décimas inferior a la correspondiente al periodo anterior y da inicio a una fase de desaceleración que se prolongará durante varios trimestres. Entre las razones para ese menor crecimiento, que son comunes para otras economías desarrolladas, se encuentran las consecuencias de la guerra en Ucrania, el encarecimiento de los productos energéticos y la elevada inflación que ha traído consigo, el cambio de signo de la política monetaria precisamente para frenar la inflación, la debilidad de China por su política contra la pandemia y la incertidumbre que se ha extendido entre los agentes económicos.

| | Eskaintzaren aldagaiak | | | | Variables de la oferta | | | |
|----------------------------|------------------------------|------------|-------------|------------|-------------------------------|------------|------------|----------------------------|
| | Urte arteko aldakuntza tasak | | | | Tasas de variación interanual | | | |
| | 2020 | 2021 | II | III | IV | I | II | PIB real |
| BPG erreala | -9,6 | 5,9 | 19,1 | 4,7 | 4,9 | 5,8 | 5,0 | PIB real |
| Nekazaritza eta arrantza | -16,9 | 21,9 | 32,9 | 29,1 | 14,5 | -1,7 | -3,2 | Agricultura y pesca |
| Industria eta energia | -12,2 | 6,1 | 27,2 | 2,4 | 3,7 | 6,5 | 6,1 | Industria y energía |
| - Manufaktura industria | -13,1 | 5,6 | 27,7 | 1,9 | 2,5 | 5,9 | 5,9 | - Ind. manufacturera |
| Eraikuntza | -14,4 | 4,5 | 15,7 | 4,7 | 2,5 | 1,9 | 1,5 | Construcción |
| Zerbitzuak | -7,9 | 5,8 | 16,9 | 5,2 | 5,5 | 6,2 | 5,6 | Servicios |
| - Merkat., ostal, garraioa | -20,4 | 11,8 | 25,5 | 12,5 | 14,6 | 13,1 | 14,1 | - Comercio, hostel.transp |
| - AA. PP., hezk., osasuna | 1,1 | 3,1 | 3,5 | 3,5 | 3,2 | 3,0 | 1,3 | - AA. PP., educ. y sanidad |
| - Gainontzeko zerbitzuak | -4,3 | 4,0 | 20,9 | 2,2 | 1,7 | 3,9 | 3,0 | - Resto de Servicios |
| Balio erantsi gordina | -9,4 | 5,9 | 19,3 | 4,7 | 5,0 | 6,0 | 5,4 | Valor añadido bruto |
| Ekoizkin g/ zerga garbiak | -11,9 | 6,1 | 17,5 | 4,2 | 4,1 | 3,9 | 3,2 | Impuest. netos s/ produc. |

Iturria: Eustat.

Fuente: Eustat.

Beste hiruhileko batez, industria izan zen urte arteko tasan gehien hazi zen sektore ekonomikoa. Aurtengo hasierako hazkunde handiaren ondoren, bigarren hiruhilekoan gehikuntza tasa %6,1ekoa izan zen, bakarrik hamaren gutxi batzuk txikiagoa. Lehengaiak eta produktu erdilanduak iristeko orduan arazoak daude oraindik, eta zenbait ondasun eta energia garestitzearen ondorioak nabaritzen hasi dira, baina hori ez da oztopo izan beren jarduna arrakastaz egin ahal izateko. Une honetan, pandemiaren aurreko jarduera maila erabat berreskuratzeko bi puntura dago sektorea.

Industria alorreko adarren barruan, nabarmentzekoa da energiaren ekoizpenak bultzada handia jaso duela, Ukrainako gerraren ondorioz Europaren bizi den energia krisiaren ondorioz. Zehatz-mehatz adierazita, energiaren ekoizpena %25 handitu zen azken hilabeteetan, eta

Un trimestre más, la industria fue el sector económico que más creció en tasa interanual. Tras el fuerte incremento del inicio del año, en el segundo trimestre la variación fue del 6,1%, tan solo unas décimas inferior. Sigue habiendo problemas en la llegada de materias primas y productos semielaborados, y han empezado a notar los efectos del encarecimiento de algunos bienes y de la energía, pero eso no ha sido obstáculo para que hayan podido desarrollar con éxito su labor. En estos momentos, el sector se encuentra a dos puntos de recuperar completamente el nivel de actividad previo a la pandemia.

Dentro de las ramas industriales, destaca el fuerte impulso recibido por la producción de energía, como resultado de la crisis energética que se vive en Europa a resultas de la guerra en Ucrania. En concreto, la producción de energía aumentó en los últimos meses del orden del 25% y la

urtearen hasieratik %15 ingurukoa izan da batez bestekoa; kopuru horiek ez dute aurrekaririk serie historikoan. Beste aldetik, ekipamendurako ondasunen ekoizpena ere oso ona da, urtean %12 inguruko batez besteko hazkundea metatzen baitu. Aitzitik, zifrak apalagoak dira bitarteko ondasunen produkzioaren kasuan, ekoizpena %1,8 baino ez baitu handitzen. Azkenik, kontsumoko ondasunetan bilakaera kontrakoa izan da kontsumo ondasun iraunkorretan (-%1,9 urtea hasi zenetik) eta ondasun galkorretan (%6,0), nahiz eta bi kasuetan jarduera sektoreko batez bestekoa baino txikiagoa izan.

media desde el inicio del año ronda el 15%, cifras que no tienen precedentes en la serie histórica. Por otro lado, también es muy favorable la producción de bienes de equipo, que acumula un incremento medio durante el año que ronda el 12%. En sentido contrario, las cifras son más modestas en el caso de la producción de bienes intermedios, que tan solo incrementa su producción en un 1,8%. Por último, en los bienes de consumo la evolución es opuesta en los bienes de consumo duradero (-1,9% en lo que va de año) y en los bienes perecederos (6,0%), aunque en ambos casos su desempeño es inferior a la media del sector.

| Jarduera adierazleak | | Indicadores de actividad | | | | | | | |
|-------------------------------|-------|-------------------------------|---------|-------|-------|-------|---------------------|-------|----------------------------|
| Urte arteko aldakuntza tasak | | Tasas de variación interanual | | | | | | | |
| | | 2020 | 2021 | 2021 | | 2022 | | | |
| | | | | II | III | IV | I | II | |
| Industria | | | | | | | Industria | | |
| Industria produkzio ind. | -13,4 | 10,5 | 32,3 | 6,9 | 6,5 | 8,1 | 7,4 | 7,4 | Índ. produc. industrial |
| Negozio zifren indizea | -16,2 | 18,2 | 42,2 | 16,1 | 15,6 | 21,4 | 38,7 | 38,7 | Cifra de negocios |
| Industria gioraren indizea | -19,5 | -10,2 | -10,1 | -16,4 | -10,7 | 6,5 | 4,7 | 4,7 | Índice de clima industrial |
| Gizarte Seg. afiliazioa | -3,2 | -0,5 | -0,4 | 1,2 | 0,7 | 1,5 | 1,1 | 1,1 | Afiliación a la SS |
| Eraikuntza | | | | | | | Construcción | | |
| Eraikuntza koiuntura ind. | -8,1 | 7,8 | 17,2 | 4,5 | 2,7 | 8,1 | 8,4 | 8,4 | Índ. coyuntural construc. |
| Etxe berrieta rako bisatuak | -6,5 | 39,6 | 48,9 | 36,6 | 9,9 | 0,2 | -34,9 | -34,9 | Visados vivienda nueva |
| Etxebizitzen salerosketak | -13,6 | 21,3 | 59,7 | 17,4 | 9,0 | 16,6 | 6,0 | 6,0 | Compraventa viviendas |
| Gizarte Seg. afiliazioa | -0,9 | 1,1 | 3,3 | 1,0 | 1,1 | 1,9 | 1,7 | 1,7 | Afiliación a la SS |
| Zerbitzuak | | | | | | | Servicios | | |
| Hegazki bidezko bidaia iariak | -71,6 | 57,5 | 2.440,3 | 118,5 | 278,5 | 382,5 | 272,1 | 272,1 | Tráfico aéreo pasajeros |
| Hoteletan gaualdiak | -61,5 | 73,4 | 422,1 | 81,4 | 216,8 | 176,5 | 146,5 | 146,5 | Pernoctaciones hoteleras |
| Negozio zifren indizea | -12,4 | 15,4 | 33,2 | 12,8 | 17,4 | 18,1 | 20,3 | 20,3 | Índice cifra negocios |
| Zerbitzuen koiuntura ind | -7,4 | 6,0 | 20,0 | 1,7 | 2,4 | 4,8 | 4,9 | 4,9 | Índ. coyuntural servicios |
| Gizarte Seg. afiliazioa | -0,8 | 1,2 | 2,2 | 2,0 | 2,3 | 2,9 | 2,9 | 2,9 | Afiliación a la SS |

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustat, INE, Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioa, Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agenda Ministerioa, Gizarte Segurantza eta AENAren datuetan oinarrituta.

Fuente: Elaboración de la Dirección de Economía y Planificación según datos del Eustat, INE, Ministerio de Industria, Comercio y Turismo, Ministerio de Transportes, Movilidad y Agenda Urbana, Seguridad Social y AENA.

Industriak erakusten duen indarra sektoreak gaur egungo egoerari buruz eman dituen erantzunetan ere hauteman daiteke, industria klimaren indizean jasota baitaude. Datu berrienetan, oraindik ere baikortasun esanguratsua ikusten da, baina udaberriko datuetan baino txikiagoa. Harrezkero, eskaeren zorroak okerrera egin du apur bat, nahiz eta oraindik ere garrantzitsua den, eta saldu gabeko stockek gora egin dute. Aitzitik, ekoizpenaren joerari buruzko erantzunak oso onak dira oraindik ere. Enpleguari buruzko igurikimenek ere okerrera egin dute inuesta horretan.

La fortaleza que muestra la industria se aprecia también en las respuestas del sector sobre el momento actual, recogidas en el índice de clima industrial. En los datos más recientes, todavía se aprecia un optimismo significativo, aunque menor al mostrado en los datos de primavera. Desde entonces, se observa un ligero empeoramiento en la cartera de pedidos, que sigue siendo importante, y un aumento en los stocks sin vender. Por el contrario, las respuestas sobre la tendencia de la producción siguen siendo muy favorables. También se aprecia en esa encuesta un empeoramiento en relación a las expectativas

sobre el empleo.

Eraikunta da kostuen igoeraren inpaktu gehien nabaritzen ari den sektorea, beraren jarduera eritmoa asko geldiarazi baitu. Hain zuzen ere, sektorearen balio erantsia %4,7ko eritmoan hazi zen 2021eko hirugarren hiruhilekoan, ekonomia osoarena berdinduz, baina ordutik hona haren hazkunde eritmoa moteldu egin da, eta bigarren hiruhilekoan %1,5ekoa baino ez da izan, batez bestekoaren oso azpitik dagoen gehikuntza tasa baita. Eraikuntzaren kointurra indizeak iradokitzen du obra zibilak eraikuntzak baino bultzada handiagoa duela. Beste aldetik, etxebizitzaren merkatua indarberritu egin da eta salmentak %10eko eritmoan hazi dira aurtengo lehen zazpi hilabeteetan. Batez ere erabilitako etxebizitzak saltzen dira, baina eraikin berrien salmenta ere nabarmen igo da (%6,2).

Zerbitzuek beren balio erantsia %5,6 hobetu zuten urte arteko tasan bigarren hiruhilekoan, hau da, aurreko hiruhilekoan baino sei hamarren gutxiago, baina 2021. urtearen zati handi batean lortutako zenbakiek bat etorriz. Sektore horrek pandemiaren aurrean zeukan jarduera maila erabat berreskuratzea lortu du. Pandemia kontrolatzeko hartutako neurriak kentzeak eta kontsumo handiagoari dagokionez herritarrek eman duten erantzunak azaltzen dute sektoreak bizi duen une ona.

Zerbitzuen sektorea osatzen duten hiru jarduera multzoetatik, merkataritza, ostalaritza eta garraioa biltzen dituena izan zen portaera onena erakutsi zuena bigarren hiruhilekoan (%14,1), 2021eko batez besteko hazkundea (%11,8) ere gaindituz. Ostalaritza zerbitzuen eskariaren gorakada handiak eta pandemia amaitu ondoren bidaiatzeko gogoak jarduera horiek bizi duten une bikaina erraztu dute. Aitzitik, sektore publikoari lotutako jarduerek garrantzi handia izan zuten pandemiaren lehen konpasetan, eta orain hazkunde apalagoa erakusten dute (%1,3), egoera normaltasunera itzultzearekin bat etorriz. Azkenik, gainerako zerbitzuen balio erantsia %3,0 hazi zen, aurreko hiruhilekoan baino ia puntu bat gutxiago, baina iazko bigarren erdian erregistratutako batez bestekoaren gainetik.

Turismoak aurtengo lehen erdian erakutsi duen bultzada handiak jarraipena izan du hirugarren hiruhilekoaren lehen hilabeteetan ere, uztailerako eta abuzturako eskuragarri dagoen kointurako informazioaren arabera. Alde batetik, hotel establezimenduetan igarotako gaualdiak serie historiko osoko zifrak handiena izan zuten abuztuan: 839.000 gaundi, hots, aurreko urteko datua baino %7,5 gehiago. Era berean, EAeko aireportuetatik ibili ziren pertsonen kopurua %50 baino gehiago igo zen uztaila eta abuztua bitartean, eta 2019an erregistratutako mailan kokatu zen.

EAeko BPGak erakusten duen sendotasunaren ondorioz, emplegu sorrera handia lortu da, eta bigarren hiruhilekoan, lanaldi osoko lanpostu baliokideetan neurta, %3,7koa izan da. Tasa horren ondorioz, azken urtean 35.500 lanpostu gehiago izan dira lan merkatuan, eta guztira milioi bat emplegu berreskuratzeko atarian geratu dira. Beraz, pandemian galduztako emplegu guztia berreskuratu da jada, eta 2008-2009ko Atzeraldi Handiaren aurreko hiruhilekoetan erregistratutako zifretara itzultzetik gertu gaude. Emplegu berriaren guztizkotik, 30.000 lanpostu inguru zerbitzuetan kontzentratu ziren, industria ez zen

